



LKS AUDITORES, S. L. P.
Polígono Basabe. Pab. E-0 2º Dcha
20550 ARETXABALETA (Gipuzkoa)
T: 943 03 74 80
F: 943 03 74 81
lksauditores@lksauditores.es
www.lksauditores.es

MUNDUKIDE FUNDAZIOA

**Urteko kontu laburtuen
auditoretza-txostena, 2017ko
abenduaren 31koa, auditore
independente batek egina**

2018ko maiatza



LKS AUDITORES, S. L. P.
Polígono Basabe. Pab. E-0 2º Dcha
20550 ARETXABALETA (Gipuzkoa)
T: 943 03 74 80
F: 943 03 74 81
lksauditores@lksauditores.es
www.lksauditores.es

URTEKO KONTU LABURTUEN AUDITORETZA-TXOSTENA AUDITORE INDEPENDENTE BATEK EGINA

MUNDUKIDE FUNDAZIOKO Patronatuari:

Iritzia

MUNDUKIDE FUNDAZIOAren urteko kontu laburtuak ikuskatu ditugu. Honako hauek hartzen dituzte barne: 2017ko abenduaren 31ko balantze laburtua, emaitza-kontu laburtua eta egun horretan bukatu den ekitaldiko memoria laburtua.

Gure ustez, honekin batera doazen urteko kontu laburtuek zorroztasunez islatzen dituzte, alderdi nabarmen guztietan, MUNDUKIDE FUNDAZIOAk 2017ko abenduaren 31n duen ondarea eta egoera finantzarioa, eta egun horretan bukatutako ekitaldiko eragiketen emaitzak. Horiek guztiek aplikatzekoak diren finantza-informaziorako arauak —memoria laburtuaren 2.a oharrean zehaztu dira— eta, bereziki, horietan jasotako kontabilitate-printzipio eta -jarraibideak betetzen dituzte.

Iritzia emateko oinarria

Auditoretza egiteko, Espainian indarrean dagoen kontu-ikuskaritzei buruzko arautegian oinarritu gara. Arau horien arabera dagozkigun erantzukizunak geroago deskribatuko ditugu, gure txostenaren atal honetan: Auditorearen erantzukizunak urteko kontu laburtuen auditoretzan.

Erakundetik independenteak gara, kontu-ikuskaritzak arautzen dituen araudian xedatutakoarekin bat, Espainiako urteko kontuen auditoretzan ezarri beharreko etika-eskakizunei (eta independentziari lotutakoei) jarraikiz. Zentzu horretan, ez dugu kontu-auditoretzaz bestelako zerbitzurik eskaini, eta ez da ezer gertatu, araudi horren arabera eduki behar den ezinbesteko independentzia zalantzan jarri duenik.

Gure ustez, auditoretzarekin lortu dugun ebidentziak nahikoa oinarri egokia eskaintzen du gure auditoretza-iritzia emateko.

MUNDUKIDE FUNDAZIOA

Urteko kontu laburtuen auditoretza-txostena, 2017ko abenduaren 31koa,
auditore independente batek egina

Auditoretzaren alderdirik garrantzitsuenak

Gure iritzi profesionalaren arabera, uneko epealdiko urteko kontuen auditoretzan akats materiala eragiteko arriskurik nabarmenenak dira, izan ere, auditoretzaren alderdirik garrantzitsuenak. Arrisku horiek osotasunean aztertu ditugu gure urteko kontuen auditoretzan, eta osotasunean eman dugu, halaber, horiei buruzko iritzia; hau da, ez dugu arrisku horietako bakoitzari buruzko iritzi bereizirik adierazi.

Diru-laguntza bidezko sarrerak onartzea***Deskribapena***

MUNDUKIDE FUNDAZIOA fundazio pribatua da. Hauxe da bere helburua: hegoaldeko herrialdeekin lankidetzan aritzea: esperientziak, baliabideak eta egiten jakitea partekatzea, inplikaturako alderdien garapen autogestionatua eta integrala sustatzeko. Horretarako, kooperatiba-arloaren elkartasuna aktibatzen du; 2017ko ekitaldiko sarrera guztietatik % 54 proiektu jakinetarako diru-laguntzetatik etorri dira eta, beraz, administrazio publikoetatik datozen sarreren menpekotasun handia dauka.

Diru-laguntzak kobratzeko eskubidearen bidezkoasuna egiaztatzea eta sortzapen-irizpideen arabera emaitzetara edo hainbat ekitalditan banatzeko sarreretara egozteak gure auditoretzaren alderdi garrantzitsuak dira, diru-laguntza horiek emaitza-kontuan duten bolumena eta ekitaldiko sarrerak zehaztean akats materiala egiteko arriskua aintzat hartuta.

Gure erantzuna

Alderdi horretan gauzatutako auditoretza-prozedurak kontuan hartu ditu, besteak beste, diru-laguntzak emateko ebazpenen zuzentasuna (ez itzultzekoak direla ikusirik) eta kontabilitatean egoki jaso diren, helburuaren arabera. Diru-laguntzak emateko ezarritako baldintzak bete dituzten eta jasotzearen inguruko arrazoizko zalantzarik ez dagoen egiaztatu dugu. Era berean, herri-erakundeek eta erakunde pribatuek emandako diru-laguntzen esleipen-erabakiak berrikusi ondoren, ekitaldiko emaitzari egotzitako diru-laguntzak eta 2017ko ekitaldia ixtean oraindik kobratu gabeko zenbatekoak daudela egiaztatu dugu. Orobat, zenbateko horiek geroago kobratu diren eta, dagokionean, kobratzeko dagoen saldoaren zuzentasuna ere egiaztatu ditugu.

Illo beretik, erantsitako memoriaren 4.h, 4.j, 12 eta 15.c oharretan azaldutako edukiei dagokienez, Erakundeak emandako informazioaren egokitasuna ere aztertu dugu.

MUNDUKIDE FUNDAZIOA

Urteko kontu laburtuen auditoretza-txostena, 2017ko abenduaren 31koa.
auditor independente batek egin

Burutu ditugun prozeduretan oinarrituta, gure iritziz, jasotako diru-laguntzen harira urteko kontuetan egindako kontabilitate-tratamendua eta informazio-xehakapena arrazoizkoak dira eta lortutako ebidentziarekin bat datoz.

Patronoen erantzukizuna urteko kontu laburtuen inguruan

Honekin batera doazen urteko kontuak formulatzea patronoen ardura da, eta Fundazioaren ondarea, finantza-egoera eta emaitzak islatu behar dituzte, zorrotasunez, Espainian erakunde horri aplikatu beharreko finantza-informaziorako arauak betez eta, era berean, urteko kontu laburtuak iruzur edo hutsegiteen ondoriozko akats materialik gabe prestatzeko nahitaezkoztat jotzen duten barne-kontrolari jarraikiz.

Urteko kontu laburtuak prestatzean, patronoen ardura da Erakundeak jarduneko enpresa izaten jarraitzeko gaitasuna ote duen balioestea. Dagokionean, jarduneko enpresari lortutako gaiak azaldu eta jarduneko enpresaren kontabilitate-printzipioa erabili behar dute, salbu eta patronoek Erakundea likidatzeko eta eragiketak amaitzeko asmoa badute, edota beste aukera errealistik ez badago.

Auditorearen erantzukizunak urteko kontu laburtuen auditoretzaren inguruan

Gure helburuak dira, batetik, urteko kontu laburtuek osotasunean hutsen baten edo iruzurren baten ondoriozko akats materialik ez dutelako arrazoizko segurtasuna lortzea eta, bestetik, gure iritzia jasotzen duen auditoretza-txostena egitea. Arrazoizko segurtasuna segurtasun-maila altua da; baina, halere, ez du bermatzen Espainian auditoretza-jarduna erregulatzeko araudiaren arabera egindako auditoretzek akats materialak beti antzemango dituztenik, baldin badaude. Akatsak hutsegiteen edo iruzurren ondoriozkoak izan daitezke, eta akats materialtzat jotzen dira, baldin eta urteko kontuetan oinarrituta erabiltzaileek hartzen dituzten erabaki ekonomikoetan banaka edo batuta eragin dezaketen arrazoizko ustea badago.

Espainiako kontu-ikuskaritzeari buruzko araudiarekin bat, gure iritzi profesionala ezartzen dugu eta eszeptizismo profesionalean oinarritutako jarrerari eusten diogu auditoretza osoan. Eta, gainera:

- Urteko kontuetan hutsegite baten edo iruzurren baten ondoriozko akats materialik egoteko arriskuak identifikatu eta balioztatzen ditugu, arrisku horiei erantzuteko auditoretzako prozedurak ezartzen ditugu eta gure iritzia oinarritzeko auditoretza-ebidentzia nahikoa eta egokiak lortzen ditugu. Iruzurraren ondoriozko akats materiala ez antzemateko arriskua handiagoa da, hutsegitearen ondoriozko akats materiala ez aurkitzeko arriskua baino; izan ere, iruzurrak berekin ekar ditzake kolusioa, faltsutzea, nahitako ez-egiteak, nahitako adierazpen okerrak edo barne-kontrola saihestea.

MUNDUKIDE FUNDAZIOA

Urteko kontu laburtuen auditoretza-txostena, 2017ko abenduaren 31koa,
auditor independente batek egina

- Auditoretzarako garrantzitsua den barne-kontrolari buruzko ezagutza eskuratzen dugu; ez erakundearen barne-kontrolaren eraginkortasunari buruzko iritzia emateko, inguruabarren arabera egokiak diren auditoretza-prozedurak diseinatu ahal izateko baizik.
- Erabilitako kontabilitate-politikak egokiak diren eta kontabilitate-estimazioak eta patronoek emandako informazioa arrazoizkoak diren balioesten dugu.
- Patronoek jarduneko enpresaren kontabilitate-printzipioa egoki erabili duten erabakitzen dugu, eta, lortutako auditoretza-ebidentzian oinarrituta, ondorioztatzen dugu gertaeretan edo baldintzetan ba ote dagoen ziurgabetasun materialik, Erakundeak jarduneko enpresa izaten jarraitzeko gaitasunaren inguruan zalantza nabarmenak sortzeko modukorik. Zalantza materiala dagoela ondorioztatuz gero, urteko kontuetan horren inguruan emandako informazioari buruz ohartarazi behar dugu gure auditoretza-txostenean. Eta informazio hori okerra bada, iritzi aldatua eman behar dugu. Auditoretza-txostenaren egunera arte lortutako auditoretza-ebidentzian oinarritzen dira gure ondorioak. Halere, litekeena da geroagoko gertaeren edo baldintza berrien ondorioz, Erakundeak jarduneko enpresa izateari utzi behar izatea.
- Urteko kontu laburtuen (eta informazioaren) aurkezpen globala, egitura eta edukia ebaluatzen ditugu, baita urteko kontu laburtuek transakzio eta azpiko gertaera guztiak egoki jasotzen dituzten ere, benetako egoera zehatz-mehatz islatzeko.

Erakundeko patronoekin harremanetan egoten gara, besteak beste, planifikatutako auditoretza noiz egin eta zer irismen izango duen jakiteko, auditoretzan azaldutako kontu nagusiak aztertzeke eta auditoretzan aurkitutako barne-kontrolerako edozein gabezia esanguratsuren berri emateko.

Erakundearen patronoei jakinarazitako arriskurik adierazgarrienei dagokienez, uneko epealdiko urteko kontu laburtuen auditoretzako nabarmenenak zehaztu ditugu, horiexek baitira arriskurik garrantzitsuenen gakoak.

Arriskuok gure auditoretza-txostenean deskribatzen ditugu, betiere legezko edo arauzko xedapenek gai horiek plazaratzea debekatzen ez badute.

LKS AUDITORES, S.L.P.


ROACen inskribatua. S1054 zenbakia



Pedro Mª Jauregui Bidaburu

ROACen inskribatua. 19.295 zenbakia

2018ko maiatzaren 29a



LKS AUDITORES, S.L.P.

2018 Núm. 03/18/03430

COPIA
Informe de auditoría de cuentas sujeto
a la normativa de auditoría de cuentas
española o internacional

MUNDUKIDE FUNDAZIOA

URTEKO KONTU LABURTUAK, 2017KO EKITALDIKOAK


AURKIBIDEA

Emaizta-kontu laburtua, 2017ko eta 2016ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldietakoa

Galdu-irabazien kontu laburtua, 2017ko eta 2016ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldietakoa

Memoria

1. Fundazioaren izaera eta helburua
2. Urteko kontu laburtuak aurkezteko oinarriak
3. Emaizten aplikazioa
4. Erregistratzeko eta balioztatze arauak
5. Ibilgetu ukiezina
6. Ibilgetu materiala
7. Finantza-aktiboak eta -pasiboak, kategorien arabera
8. Epe luzerako finantza-inbertsioak
9. Zordun komertzialak eta kobratu beharreko bestelako kontuak
10. Eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak
11. Fondo propioak
12. Jasotako diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak
13. Epe laburrerako zorrak
14. Hartzekodun komertzialak eta ordaindu beharreko beste kontu batzuk
15. Sarrerak eta gastuak
16. Erakundearen jardura
17. Bestelako informazioa
18. Itxieraren ondorengo gertaerak



MUNDUKIDE FUNDAZIOA

EGOERA-BALANTZE LABURTUA, 2017KO eta 2016KO ABENDUAREN 31KOA

(Eurotan adierazita)

AKTIBOA	Oharra	17-12-31	16-12-31	ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	Oharra	17-12-31	16-12-31
AKTIBO EZ-KORRONTEA		5.109	3.728	ONDARE GARBIA		2.199.625	2.738.741
I. Ibilgetu ukiezina	5	-	-	I. Fondo propioak	11	1.137.727	1.137.727
II. Ibilgetu materiala	6	2.764	3.095	I. Fundazioko ondarea		6.371	6.371
III. Epe luzerako finantza-inbertsioak	8	2.345	633	1. Fundazioko zuzkidura		6.371	6.371
				II. Erreserbak		1.131.356	890.037
				1. Bestelako erreserbak		1.131.356	890.037
				III. Ekitaldiko emaitza		-	241.319
				2. Jasotako diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak	12	1.061.898	1.601.014
				1. Diru-laguntzak		772.387	1.601.014
				2. Hainbat ekitalditan banatzeko sarrerak		289.511	-
AKTIBO KORRONTEA		2.424.400	3.214.899	PASIBO KORRONTEA		229.884	479.886
I. Zordun komertzialak eta kobratu beharreko bestelako kontuak	9	484.025	684.922	I. Epe laburrerako zorrak	13	3.617	5.568
1. Bezeroak, salmentengatik eta emandako zerbitzuegatik		-	-	1. Kreditu-erakundeetako zorrak		3.469	5.418
2. Bestelako zordunak		462.979	266.361	2. Beste finantza-pasibo batzuk		148	150
3. Langileak		2.962	516	II. Hartzekodun komertzialak eta ordaindu beharreko beste kontu batzuk	14	226.267	474.318
4. Administrazio publikoetako bestelako kredituak		18.084	418.045	1. Hornitzaileak		35.972	55.631
II. Eskudirua eta bestelako aktibo likido balioideak	10	1.940.375	2.529.977	2. Beste hartzekodun batzuk		132.570	362.544
				3. Ordaintzeko dauden ordainsariak		25.892	27.493
				4. Administrazio publikoetako bestelako zorrak		31.833	28.650
AKTIBO GUZTIRA		2.429.509	3.218.627	ONDARE GARBIA ETA PASIBO GUZTIRA		2.429.509	3.218.627

Erantsitako memorian adierazten diren 1etik 18ra bitarteko oharrak 2017ko eta 2016ko abenduaren 31ko egoera-balantzearen osagaiak dira.

Arrasate, 2018ko otsailaren 12a

Lehendakaria

Idazkaria

Administratzailea

MUNDUKIDE FUNDAZIOA
GALDU-IRABAZIEN KONTU LABURTUA
2017KO ETA 2016KO ABENDUAREN 31KOA
(Eurotan adierazita)

	Oharrak	2017	2016
A) ERAGIKETA JARRAITUAK			
1. Jardueraren ondoriozko sarrerak		1.871.649	1.628.476
a) Elkartekide eta afiliatuaren kuotak	15.a	90.057	75.009
b) Sustapenetatik eta babesle eta kolaboratzaileengandik etorritako sarrerak	15.b	778.016	511.731
c) Diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak	15. c	1.003.576	1.041.736
2. Laguntzen eta abarren ondoriozko gastuak		(1.104.617)	(680.432)
a) Laguntza monetarioak	15.d	(993.199)	(559.882)
b) Laguntza ez-monetarioak	15.e	(111.418)	(120.550)
3. Jardueraren bestelako sarrerak		12.548	21.774
4. Pertsonal-gastuak	15. f	(598.811)	(604.829)
5. Jardueraren bestelako gastuak	15.g	(178.037)	(122.407)
6. Ibilgetuaren amortizazioa	5 eta 6	(332)	(538)
A.1) JARDUERAREN SOBERAKINA		2.400	242.044
7. Finantza-sarrerak		7	22
8. Finantza-gastuak		(2.316)	(959)
9. Kanbio-aldeak		(91)	212
A.2) FINANTZA-ERAGIKETEN SOBERAKINA		(2.400)	(725)
A.3) ZERGA AURREKO SOBERAKINA		=	241.319
10. Mozkinen gaineko zerga		-	-
A.4) ONDARE GARBIAREN ALDAKUNTZA, EKITALDIKO SOBERAKINEAN AITORTUA		=	241.319
B) ONDARE GARBIARI ZUZENEAN EGOTZITAKO SARRERAK ETA GASTUAK		659.127	762.905
1. Jasotako diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak		659.127	762.905
a) Diru-laguntzak		369.616	762.905
b) Hainbat ekitalditan banatzeko sarrerak		289.511	-
C) EKITALDIKO SOBERAKINARI EGINDAKO BIRSAILKAPENAK		(1.198.243)	(1.041.736)
1. Jasotako diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak		(1.198.243)	(1.041.736)
a) Diru-laguntzak		(1.003.576)	(1.041.736)
b) Diru-laguntzen zati bati uko egitea		(194.667)	-
F) HUTSEGITEEN ONDORIOZKO DOIKUNTZAK		-	-
1. Borondatezko erreserbak		-	-
E) EMAITZA GUZTIRA, EKITALDIKO ONDARE GARBIAREN ALDAKUNTZA		(539.116)	(37.512)

Erantsitako memorian adierazi diren 1etik 18ra bitarteko oharrak 2017ko eta 2016ko abenduaren 31ko galdu-irabazien kontuaren osagaiak dira.


Arrasate, 2018ko otsailaren 12a

Lehendakaria

Idazkaria

Administratzailea

2



MUNDUKIDE FUNDAZIOA
Memoria laburtua, 2017ko abenduaren 31koa

1. OHARRA. FUNDAZIOAREN IZAERA ETA HELBURUA

MUNDUKIDE FUNDAZIOA (aurrerantzean, «Fundazioa») 1999ko irailaren 10eko eratze-eskritura bidez sortutako fundazio pribatua da. Arrasateko (Gipuzkoa) Zarugalde kaleko 30. zenbakian du egoitza soziala.

Euskadiko Fundazioen ekainaren 17ko 12/1994 Legean eta EAEko Fundazioen Erregistroa eta Babeslaritza antolatu eta jardunean jartzeko Arautegia onartu zuen urriaren 18ko 404/1994 Dekretuan jasotako arauen pean dago Fundazioa.

Hona hemen Fundazioaren helburuak:

- a) Hegoaldeko eskualdeetan garapen sozioekonomiko duina bultzatzea. Gutxieneko beharrianak (hala nola elikadura, osasuna, hezkuntza eta ur edangarria) aseta edukitzea jotzen dugu garapen-maila duintzat.
- b) Enpresak (ahal dela, kooperatibak) sortzen laguntzea jardun hori betetzeko potentzialtasuna duten hegoaldeko herrietan.
- c) Esperientziak trukatzeko auzolanean eta gizarte-garapenerako beste esperientzietan jardun luzea duten komunitate indigenen eta Fundazioa osatzen duten erakundeen artean.

Erabilera askeko diru-sarreraren eta hirugarrenek finantzatuta ez dauden gastuen artean dagoen aldea banatu beharreko sarreraren kontuan erregistratzea onartu du Patronatuaren Batzordeak 2018ko otsailaren 12an egindako bileran. Halatan, ekitaldi bakoitzeko urteko soberakina zero eurokoa izango da, eta egon litezkeen alde positiboak edo negatiboak kudeaketako bestelako gastu eta sarreraren kontuan erregistratuko dira. 2017ko ekitaldian ezarriko da lehen aldiz irizpide hori.

2. OHARRA. URTEKO KONTU LABURTUAK AURKEZTEKO OINARRIAK

a) Fundazioari aplikatzeko finantza-informazioaren arau-esparrua

Urteko kontu laburtu hauek Fundazioari ezarri behar zaion finantza-informazioaren arau-esparruari jarraikiz egin dituzte Patronatuko kideek. Honako lege hauek osatzen dute arau-esparru hori:

- Merkataritza Kodeak eta merkataritzako gainerako legeriak.
- Kontabilitate Plan Orokorra (azaroaren 16ko 1514/2007 Errege Dekretu bidez onartua), ondoren irailaren 17ko 1159/2010 Errege Dekretuak aldatu zuena.

Arrasate, 2018ko otsailaren 12a

Lehendakaria

Idazkaria

Administrazioilea

3



MUNDUKIDE FUNDAZIOA

Memoria laburtua, 2017ko abenduaren 31koa

- 1491/2011 Errege Dekretua, urriaren 24koa, Kontabilitate Plan Orokorra irabazi-asmorik gabeko erakundeetara egokitzea.
- Kontabilitate Plan Orokorra eta haren arau osagarriak garatzeko Kontabilitate eta Kontuen Ikuskaritza Institutuak onartutako nahitaezko arauak.
- Aplikatzekoa den Espainiako gainerako kontabilitate-araudia.

b) Egoera zehaztasunez

Patronatuko kideek Fundazioaren ondarea, finantza-egoera eta emaitzak zertan diren zehatz-mehatz islatzeko egin dituzte 2017ko ekitaldiko urteko kontuak.

c) Aurkezpen-oinarriak

Atxikita datozen 2017ko ekitaldiko urteko kontuak prestatzeko, Fundazioaren kontabilitateko erregistro laguntzaileetan oinarritu gara, eta Kontabilitate Plan Orokorra onartu zuen azaroaren 16ko 1514/2007 Errege Dekretuarekin eta kontabilitate-alorrean nahitaez bete beharreko lege-xedapenekin bat aurkeztu dira, Fundazioak ekitaldi honetan duen ondarearen, finantza-egoeraren eta emaitzen irudi zorrotza eta benetakoa emateko.

Halaber, Kontabilitate Plan Orokorra irabazi-asmorik gabeko erakundeei egokitu ahal izateko —urriaren 24ko 1491/2011 Errege Dekretua—, urteko kontu hauek arau horiei jarraiki prestatu dira, aplikagarri zaizkien eta Kontabilitateko Plan Orokorra onestu zuen abenduaren 16ko 1514/2007 Errege Dekretua urratzen ez duten arlo guztietan.

d) Informazioaren konparazioa

Merkataritza Kodearen 35.6 artikuluan ezarritako merkataritza-legeriak eskatzen duen alderaketa egiteko, 2017ko ekitaldiko egoera-balantze laburtuan eta galdu-irabazien kontu laburtuan aurreko ekitaldiko kopuruak ere ezarri ditugu, alderatzeko xedez.

Bestalde, enpresaren irudi zehatza eskaintzeko garrantzitsuak diren aurreko ekitaldiko egoerari buruzko datu kualitatiboak ere jaso dira, memoriako ataletan.

e) Balioespenaren alderdi kritikoak eta ziurgabetasuna aintzat hartzea

Urteko kontuak egiteko, kontabilitate-estimazio batzuk erabili ditugu, eta iritziak, estimazioak eta hipotesiak egin ditugu, Fundazioaren balioztapen-arauek aplikatzeko prozesuan. Erantsitako urteko kontuetan eragin nabarmena duten estimazioak honako hauek dira:

- Sozietateak urtero egiaztatzen du narriadura-zantzuak dituzten aktiboetan halakorik dagoen, eta, ondorioz, haien balio berreskuragarria zenbatesten du.

Arrasate, 2018ko otsailaren 12a

Lehendakaria

Idazkaria

Administratzailea

4



MUNDUKIDE FUNDAZIOA
 Memoria laburtua, 2017ko abenduaren 31koa

Urteko kontuak aztertzeke egunean eskura zegoen informaziorik onenaren arabera egin genituen estimazio hauek. Hala ere, baliteke etorkizuneko gertaeren ondorioz hurrengo ekitaldietan estimazioak aldatu behar izatea (igotzeko edo jaisteko). Horretarako, prospekzioa erabiliko genuke, estimazio-aldaketak etorkizuneko galdu-irabazien kontuetan izan lezakeen eragina kontuan hartuta.

f) Dibisa funtzionala

Urteko kontu laburtu hauek eurotan aurkeztu ditugu, Fundazioak diharduen eremu ekonomikoan erabilitako dibisa euroa baita.

g) Informazioaren erantzukizuna

Urteko kontu laburtu hauetako informazioa Fundazioaren Patronatuko kideen ardura da.

h) Akats-zuzenketa

Ez da akatsik egon ekitaldian.

3. OHARRA. EMAITZEN APLIKAZIOA

2017ko ekitaldiko galdu-irabazien kontuak emaitza orekatua du, Fundazioaren jardura goitik behera finantzatuta baitago.

Lortutako erabilera askeko sarrerak baldintzatzen dute sarreraren eta gastuen aurrekontuaren oreka.

Ondoren azalduko ditugu, eurotan, 2017ko ekitaldiko erabilera askeko sarrerak eta ustiapen defizita eta superabita.

KONTZEPTUA	2017
ERABILERA ASKEKO SARRERAK	880.628
-Elkartekide eta afiliatuen kuotak	90.057
-Sustapenetatik eta babesle eta kolaboratzaileengandik etorritako sarrerak	778.016
-Jardueraren bestelako sarrerak	12.548
-Finantza-sarrerak	7
DIRU PROPIOEN BIDEZ FINANTZATUTAKO JARDUERA	(591.117)
Ustiapeneko (-) DEFIZITA / (+) SUPERABITA	289.511
HAINBAT EKITALDITAN BANATZEKO GASTUAK (12. oharra)	289.511
DEFIZITA EKITALDI BATZUETAN BANATZEKO SARREREZ ESTALTZEA	-
EKITALDIKO EMAITZA	-


Arrasate, 2018ko otsailaren 12a

Lehendakaria

Idazkaria

Administratzailea

5



4. OHARRA. ERREGISTRATZEKO ETA BALIOZTATZEKO ARAUAK

Erantsitako urteko kontuak egiteko, honako erregistro- eta balioztapen-arau nagusi hauek erabili ditugu, 2007ko azaroaren 16ko 1514/2007 Errege Dekretuko Kontabilitate Plan Orokorren arabera:

a) Ibilgetu ukiezina

Hasiera batean, eskuratzeko edo ekoizteko kostuaren arabera balioztatzen dira. Ondoren, amortizazio metatua eta narriadurak eragindako galerak kentzen zaizkio hasierako kostuari.

Informatika-aplikazioak

Informatika-aplikazioetarako eta oinarritzko informatika-sistemarako enpresaren kudeaketan sortu diren eskuratzeko eta garapen-kostuak egoera-balantzeko «ibilgetu ukiezina» epigrafean erregistratzen dira. Informatika-sistemen mantentze-kostuak sortu diren ekitaldiko galdu-irabazien kontuan erregistratzen dira.

Informatika-aplikazioen amortizazioa linealki egiten da, aplikazioa ustiatzen hasi ondorengo lau urteko epealdian.

b) Ibilgetu materiala

Ibilgetu materialeko ondasunak erabilera propiokoak dira erabat, eta, hasiera batean, erosteko edo ekoizteko kostuaren arabera balioztatzen dira. Ondoren, amortizazio metatua eta narriadurak eragindako galerak kentzen zaizkio hasierako kostuari.

Produktibitatea, gaitasuna edo eraginkortasuna handitzea nahiz ondasunen balio-bizitza luzatzea eragiten duten zabalkuntzaren, modernizazioaren edo hobekuntzen kostuak kapitalizatzeko, ondasun horien kosturik handiena hartzen da aintzat. Balio-bizitza handitzeko balio ez duten konponketak eta mantentze-gastuak sortu diren ekitaldiko emaitza-kontuaren kargura erregistratzen dira.

Metodo linealari jarraiki amortizatzen du Fundazioak ibilgetu materiala, eta aktiboen kostua balio-bizitza hauen artean banatzen du:

KONTZEPTUA	Balio-bizitza zenbatetsia (urteak)
Bestelako instalazioak	7
Informazioa prozesatzeko ekipamendua	4





MUNDUKIDE FUNDAZIOA

Memoria laburtua, 2017ko abenduaren 31koa

Ibilgetu materialeko elementuak besterenduz sortzen den mozkina edo galera ateratzeko, salmentagatik jasotako zenbatekoaren eta besterendutako aktiboaren kontabilitate-balioaren arteko aldea kalkulatzeko da.

c) Aktiboen balioaren narriadura

Egoera-balantzea egiterakoan edo balio-galera dagoela susmatzen den guztietan, aktibo materialen liburutako zenbatekoak berrikusten ditu Fundazioak, balioa narriatzearen ondorioz aktibo horiek galerarik izan duten ikusteko. Galera egon dela susmatzen bada, aktiboan berreskura daitekeen zenbatekoa kalkulatzeko da, balioaren narriaduragatik galeraren norainokoa zehazteko (balidin badago).

Aktibo batetik berreskura daitekeen zenbatekoa kontabilitate-balioa baino txikiagoa dela ikusten bada, aktiboaren kontabilitate-balioa murriztu egiten da berreskura daitekeen zenbatekoraino, eta balioa narriatzearen ondoriozko galeraren zenbatekoa ekitaldiko gastu gisa aitortzen da.

Balioa narriatzearen ondoriozko galerak eragina izango badu gerora, aktiboaren liburutako zenbatekoa handitu egiten da zenbateko berreskuragarriaren zenbatespen berrikusiraino. Liburutako kopuru handitu horrek ezin izango du gainditu, alabaina, aurreko ekitaldietan aktiboari balioa galtzearen ondorioz galerarik aitortu ez balitzaio liburutetan emango zitzaiokeen zenbatekoa. Balioa narriatzearen ondoriozko galeraren lehengoratzeko sarreratzat hartzen da, berehala.


2017 eta 2016 ekitaldietan, Fundazioak ez du ikusi ibilgetuaren narriaduragatik galerak erregistratzeko zantzurik.

d) Finantza-tresnak – Finantza-aktiboak

Finantza-aktiboak eskuratzeko-kostuan erregistratzen dira hasiera batean, eragiketari dagozkion kostuak barne hartuta. Fundazioak honela sailkatzen ditu bere finantza-inbertsio korranteak eta ez-korranteak:

- 1. Maileguak eta kobratu beharreko partidak.** Sozietateak enpresako trafiko-eragiketetan saldutako ondasunen eta emandako zerbitzuen bidez sortzen dituen finantza-aktiboak dira. Atal horretan barne hartutako aktiboak beraien arrazoizko balioaren arabera balioesten dira balantzean. Emandako kontraprestazioaren arrazoizko balioa gehi zuzenean egotz dakizkiekeen transakzio-gastuen batura da balio hori. Ondoren, aktiboak «kostu amortizatuan» balioesten dira, interes-tasa efektiboa erabiliz.

Fundazioak eragiketa hau egiten du hornidurak erregistratzeko: kobratu beharreko kontuetatik berreskuratzea espero duen zenbatekoa (eragiketaren jatorrizko interes-tasa efektiboari kendu ondoren) ken erregistratuta duten kontabilitate-balioa.



MUNDUKIDE FUNDAZIOA

Memoria laburtua, 2017ko abenduaren 31koa

2. **Muga-egunera arte eutsitako inbertsioak.** Zenbateko finkoa edo ezaguna kobratzekoak izanik, muga-eguna finkatuta dutenak eta Fundazioak muga-egunera arte eusteko asmoa duenak dira. Atal horretan barne hartutako aktiboak arrazoizko balioaren arabera balioztatzen dira, hasiera batean. Ondoren, aktiboak kostu amortizatuan balioztatzen dira, eta sortutako interesak emaitza-kontuan aitoritzen dira, interes-tasa efektiboa erabiliz. Kostu amortizatua hauxe da: hasierako kostua ken printzipalaren kobrantzak eta gehi edo ken hasierako zenbatekoaren eta errenbolsatso-balioaren arteko aldearen amortizazio metatua, narriaduraren edo ez-ordaintzearen ondorioz gerta daitezkeen murrizketak kontuan hartuta, betiere. Interes-tasa efektiboa, oster, hauxe da: aktiboa eskuratzeko egunean, finantza-tresna baten hasierako balioa zenbatetsitako eskudiru-fluxu guztiekin parekatzen duen eguneratze-tasa. Parekatzea finantza-tresnari geratzen zaion bizitzan zehar eta kontzeptu guztietan egiten da.

Fundazioak ez zuen halako finantza-inbertsiorik, 2017ko eta 2016ko abenduaren 31n.

3. **Negoziatzeko xedez eutsitako finantza-inbertsioak.** Saltzeko eta epe laburrean etekinak lortzeko xedez erositakoak dira. Atal horretan barne hartutako aktiboak beren arrazoizko balioaren arabera balioesten dira hasiera batean, eta balioaren gorabeherak emaitza-kontuko «Finantza-gastuak» edo, dagokionean, «Finantza-sarrerak» epigrafeetan erregistratzen dira.

Fundazioak ez zuen halako finantza-inbertsiorik, 2017ko eta 2016ko abenduaren 31n.



4. **Galdu-irabazietan aldaketak dituzten eta arrazoizko balioan balioztatu diren finantza-aktiboak.** Aktibo horiek ezaugarri hauetako batzuk dituzte:

- Fundazioak epe laburrera mozkinak lortzea espero du, haien prezioaren gorabeheren ondorioz.
- Hasierako aitorpenetik sartu dira aktiboen sailkapen horretan, betiere merkatu aktibo batean kotizatzen badute edo haien arrazoizko balioa modu fidagarrian zenbatetsi badaiteke.

Atal horretan sartutako finantza-aktiboak beren arrazoizko balioaren arabera agertzen dira egoera-balantzean, eta balio horren gorabeherak galdu-irabazien kontuko «Finantza-gastuak» epigrafean edo «Finantza-sarrerak» epigrafean erregistratzen dira, dagokionean.

Fundazioak ez zuen halako finantza-inbertsiorik, 2017ko eta 2016ko abenduaren 31n.

5. **Enpresa taldekide eta elkartekideen ondarean egindako inbertsioak.** Enpresa bat taldeko partaide izateko, bien artean zuzeneko edo zeharkako kontrol-erlazioa behar da, Merkataritza Kodeak sozietate-taldeei buruzko 42. artikuluan aurreikusitakoen antzekoa. Enpresa elkartekidea izateko, berriz, taldeak eragin nabaria izan behar du haren gainean, baina ezin da mendeko enpresatzat edo sozietate taldeaniztuntzat hartu. Enpresa bazkidetuen finantza-erabakietan eta erabaki operatiboetan parte hartzeko ahalmena du taldeak, beraz, baina ezin ditu erabat kontrolatu edo batera kontrolatu.



MUNDUKIDE FUNDAZIOA

Memoria laburtua, 2017ko abenduaren 31koa

Sozietate taldekide eta bazkidetuetan egindako inbertsioak, hasiera batean, haien kostuaren arabera balioesten dira. Kostu hori emandako kontraprestazioaren arrazoizko balioaren gehi transakzio-gastuen batura da. Ondorengo balioespena egiteko, berriz, hasierako kostuari narriadurak eragindako balioespen-zuzenketen balio metatua kenduko zaio, dagokionean.

Inbertsioen balioztapen-zuzenketaren zenbatekoa, berriz, haien kontabilitate-balioaren eta kopuru berreskuragarriaren arteko aldea da. Kopuru berreskuragarria ateratzeko, honako bi zenbateko hauen artean handiena hartzen da: alde batetik, arrazoizko balioa ken salmenta-gastuak eta, bestetik, inbertsioak eragindako etorkizuneko eskudiru-fluxuen egungo balioa. Fluxu horiek kalkulatzeko bi modu daude: lehena, partaidetzako enpresaren dibidendu-banaketaren bidez eta enpresa horretan egindako inbertsioa besterentzearen edo kontuetan baja ematearen bidez jasotzea espero dena estimatzea eta, bigarrena, partaidetzako enpresari ohiko jardueretan nahiz besterentzearen edo kontuetako bajaren bidez aurreikusten zaizkion fluxuen partaidetza estimatzea. Sozietateak, horrelako aktiboen narriaduraren estimazioa egiteko, partaidetzako sozietatearen ondare garbia hartzen du aintzat, balioztapen-egunean dauden gainbalio isilbidezkoen arabera zuzenduta. Narriadurak eragindako balioespen-zuzenketak eta, dagokionean, haien itzulketa, gastu edo sarrera gisa erregistratuko dira, hurrenez hurren, galdu-irabazien kontuan.

6. **Saltzeko prest dauden finantza-aktiboak.** Aurreko bost kategoria horietan sartzen ez diren guztiak dira, eta kapitaleko finantza-inbertsioei dagozkien, ia erabat. Inbertsio horiek beraien arrazoizko balioan daude egoera-balantzean. Kotizatzen ez diren sozietateen kasuan, balio hori ordezkotzeko bideak erabiliz zehazten da, hala nola antzeko transakzioekin egindako konparazioaren bidez edo, behar beste informazio izanez gero, espero diren kutxa-fluxuak eguneratuz. Arrazoizko balioaren aldaketak ondare garbian erregistratzen dira zuzenean, harik eta finantza-aktiboa balantzetik kendu edo narriatu arte. Une horretan, hala onartutako zenbatekoa galdu-irabazien kontuan egotziko da. Zentzu horretan, narriadura iraunkorra dagoela erabakitzen da, urte eta erdiko epean aktiboaren kotizazio-balioa % 40tik gora murrizten denean eta balioak gora egiten ez duenean.

Kotizatu gabeko sozietateen kapitaleko finantza-inbertsioak eskuratze-kostuaren arabera balioztatzen dira, baldin eta haien arrazoizko balioa ezin bada modu fidagarrian neurtu.

Fundazioko Zuzendaritzak erosteko unean zehazten du aktibo bakoitzaren sailkapenik egokiena zein den, eta ekitaldi bakoitzaren bukaeran berrikusi egiten du.

e) Finantza-tresnak – Finantza-pasiboak

Finantza-pasibo korronteak eta ez-korronteak honela sailkatzen dira, balioztapenari begira:

1. **Zordunketak eta ordaindu beharreko partidak.** Eragiketa komertzialen eta ez-komertzialen ondorioz ordaindu beharreko kontuak arrazoizko balioan balioztatzen dira hasiera batean, eta, ondoren, amortizatutako kostuan, interes-tasa efektiboaren metodoa erabiliz.



MUNDUKIDE FUNDAZIOA

Memoria laburtua, 2017ko abenduaren 31koa

Interesak sortzen dituzten maileguak, obligazioak eta antzekoak, hasiera batean, jasotako eskudiruaren arabera balioesten dira, jaulkipen-kostu zuzenak kenduta, egoera-balantzearen «Finantza-zorra» epigrafean. Finantza-gastuak emaitza-kontuan kontabilizatzen dira, sortzapenaren irizpidearen arabera eta interes efektiboaren metodoa erabiliz, eta, gauzatu diren ekitaldi berean likidatzen ez diren neurrian, tresnaren zenbatekoari gehitzen zaizkio. Bestalde, finantza-errentamenduko kontratuak eragindako ordaintzeko kontuak, kontratuko kuoten egungo balioan erregistratzen dira epigrafe horretan.

2. **Negoziatzeko dauden beste finantza-pasibo batzuk.** Batez ere epe laburrean berreskuratzeko xedez jaulkitakoak dira, edo epe laburrean mozkinak lortzeko kudeatutakoak. Atal horretan sartutako pasiboak beren arrazoizko balioaren arabera balioztatzen dira hasiera batean, eta balioaren gorabeherak emaitza-kontuko «Finantza-gastuak» epigrafean edo «Finantza-sarrerak» epigrafean erregistratzen dira, dagokionean.
3. **Galdu-irabazien kontuan aldaketak dituzten eta arrazoizko balioan balioztatu diren beste finantza-pasibo batzuk.** Pasibo horiek ezaugarri hauetako batzuk dituzte:
 - Sozietateak epe laburrera mozkinak lortzea espero du, haien prezioaren gorabeheren ondorioz.
 - Hasierako aitortpenetik sartu dira aktiboen sailkapen horretan, betiere, merkatu aktibo batean kotizatzen badute edo haien arrazoizko balioa modu fidagarrian zenbatetsi badaiteke.


Atal horretan barne hartutako finantza-pasiboak beren arrazoizko balioaren arabera agertzen dira egoera-balantzean, eta balioaren gorabeherak galdu-irabazien kontuko «Finantza-gastuak» epigrafean edo «Finantza-sarrerak» epigrafean erregistratzen dira, dagokionean.

f) Eskudirua eta bestelako bitarteko likido baliokideak

Eskudiruari eta bestelako bitarteko likido baliokideei buruzko atalak honako hauek hartzen ditu barne: kutxako eskudirua, ageriko kontu korranteetako saldoak eta kreditu-erakundeetan berehala erabiltzeko aurrezki-kontuetako saldoak. Halaber, kontzeptu horren baitan sartzen dira likidezia handiko epe laburrerako beste inbertsio batzuk ere, baldin eta eskudiruko kopuruetan erraz bihurtzeko modukoak badira eta balio-aldaketak izateko arrisku txikia badute. Eskurapen-datatik hiru hilabetetik beherako muga-egunak dituzten inbertsioak ere multzo horretan daude.

g) Saldoen sailkapena: korranteak eta ez-korranteak

Erantsitako egoera-balantzean, saldoak korranteen eta ez-korranteen artean daude sailkatuta. Saldo korranteak dira Sozietateak ustiapen-ziklo normalean saldu, kontsumitu, ordaindu edo gauzatzea espero dituenak. Sailkapen horrekin bat ez datozen saldoak, berriz, ez-korranteak dira.



MUNDUKIDE FUNDAZIOA

Memoria laburtua, 2017ko abenduaren 31koa

h) Diru-laguntzak

Fundazioak irizpide hauek erabiltzen ditu eman dizkioten diru-laguntzak kontabilizatzeko:

- **Ustiapenerako diru-laguntza generikoak:** Fundazioak egiten dituen proiektuekin lotura zuzena ez duten diru-laguntzak dira. Eman ondoren, emaitzetan ordaintzen dira, Fundazioak erabakitzen duenean bertan ezarritako baldintzak bete direla eta, beraz, ez dagoela kobratzeko arrazoizko zalantzarik. Bestalde, emaitzetan egozten dira, epealdi bakoitzean diru-laguntzaren ondoriozko sarreraren eta diruz lagundutako gastuen artean kontabilitate-korrelazio egokia dagoela bermatzeko.
- **Proiektu berezietarako ustiapenerako diru-laguntzak:** Proiektu jakin baterako ematen diren diru-laguntzak dira. Halakoetan, Fundazioak proiektu-gastuak egin ahala egozten ditu sarrera-emaitzetan, diru-laguntzaren ondoriozko sarreraren eta diruz lagundutako irteeren artean kontabilitate-korrelazio egokiari eusteko asmoz. Proiektuen burutze-maila diru-laguntzaren bidez lortutako sarrerek baino txikiagoa bada, Fundazioak periodifikatu egiten ditu sarrerek.

Diru-laguntza itzulgarriak pasibo gisa erregistratzen dira, ez-itzulgarri bihurtu arte.

i) Mozkinen gaineko zerga


Mundukide Fundazioak honako arau honi jarraitzen dio: irabazi-asmorik gabeko erakundeek zerga-erregimenari eta mezenasgorako pizgarri fiskalei buruzko 2004ko apirilaren 7ko 3/2004 Foru Arauari.

Horrenbestez, ez du helburu soziala osatzen duten jardueretatik lortutako emaitzengatik sozietateen gaineko zerga zertan ordaindu, ezta erakundearen ondare higigarri eta higiezinen ondoriozkoengatik ere.

j) Sarrerek eta gastuak

Sarrerek eta gastuak dagozkien ondasun eta zerbitzu errealek arabera jasotzen dira, noiz kobratu edo ordaindu diren kontuan hartu gabe.

Dena den, zuhurtasun-printzipioari jarraikiz, ekitaldia itxi den egunean lortutako mozkinak bakarrik kontabilizatzen ditu Fundazioak. Aurreikusteko modukoak diren arriskuak eta galerak, berriz, horien berri izan bezain laster kontabilizatzen ditu, nahiz eta behin-behinekoak izan.



MUNDUKIDE FUNDAZIOA

Memoria laburtua, 2017ko abenduaren 31koa

Hona hemen Fundazioaren sarrera-iturri nagusiak:

- Administrazio publikoen diru-laguntzak. Eusko Jaurlaritza, Espainiako Gobernua eta Gipuzkoako Foru Aldundia dira, zehazki, diru-laguntzen iturri nagusiak.
- Kooperatiben dohaintzak, batez ere Mondragon Taldekoenak.
- GKE-en dohaintzak.
- Partikularren dohaintzak.
- Finantza-sarrerak.

Gastuen partidan, Fundazioaren diru-laguntzek osatzen dute zatirik garrantzitsuena. Kontu horretan sartzen dira Fundazioak elkar-lankidetzako proiektuak finantzatzeko eta laguntzeko egiten dituen gastuak, dela eskualde-garapeneko programetan, dela antolamendu sozioekonomikoa indartzeko programetan.

k) Ingurumenean eragiten duten enpresa-jarduerak

Sozietatearen ohiko jarduerak ingurumenean eragin ditzakeen ondorioak kendu, mugatu edo kontrolatzera bideratutako sistema, ekipamendu eta instalazioak erosiz gero, ibilgetuan egindako inbertsioetat hartzen dira.

Ingurumenari loturiko gainerako gastuak, elementu ibilgetuak erostearekin zerikusirik ez dutenak, ekitaldiko gastutzat hartuko dira.

Ingurumenaren arloko horniduretan, itxiera-egunean gertagarritzat edo benetakotzat jotzen diren ingurumen-gastuak sartzen dira dagokionean, nahiz eta ez jakin zehazki zenbatekoak izango diren eta noiz sortuko diren. Ondorioz, hornikuntza horien zenbatekoak (hornikuntzarik baldin badago) itxierako egunean dagoen informazioaren arabera egin daitekeen balioespenik onena adierazten du.


Arrasate, 2018ko otsailaren 12a

Lehendakaria

Idazkaria

Administratzailea

12



MUNDUKIDE FUNDAZIOA
 Memoria laburtua, 2017ko abenduaren 31koa

5. OHARRA. IBILGETU UKIEZINA

2017ko ekitaldiko mugimendua

Bilakaera hau izan du ibilgetu ukiezinak, eurotan, 2017ko ekitaldian:

KONTZEPTUA	Informatika-aplikazioak	Ibilgetu ukiezinako aurrerakinak	Guztira
KOSTUA			
2016ko abenduaren 31ko saldoa	15.930	-	15.930
Gehikuntzak	-	-	-
Intsuldaketak	-	-	-
2017ko abenduaren 31ko saldoa	15.930	-	15.930
AMORTIZAZIOA			
